

EUSKALTZAINDIARI ANTZERKI SARIKETA DELA ETA

Zokoa, 1976-IX-3

P. Larzabal

I

Antzerki sariketa dela-ta, huna ohar batzu:

- Antzerkiak izan ditazke haurrentzat:
 - . edo haurrak berak jokolari.
 - . edo adinekoak jokolari.
- Oroentzat idatziz antzerkiak, izan ditazke:
 - . edo *egiazkoak*, erran nahi dut egiazko gizabizia (gaurkoa, lehengoa) azaltzen dutenak.
 - . edo *irrigarriak*, *dramatikoak*, *bietakoak*, eta abar.
- "Zertaz eginak" aipatuz, izan ditazke:
 - . edo elezkoak bakarrik.
 - . edo, asko abesti, dantza edo musikez gorpuztuak (hauk gehienetan ez dira idazlariarenak eta, antzerkiko bazter-lan batzu izan ditazke).
- "Nolaz eginak" aipatuz, izan ditazke:
 - . edo guti gertalditakoak, baitan elkarri ongi-josi gertaldiz moldatuak (Beraz, idazteko nekeak).
 - . edo hainitz gertalditakoak, lokarri mehez elkarri lotuak (beraz, idazteko errexak).
- Izan ditazke hainitz jokolaritakoak. Beztidura, apaindura, tresnadura asko eskatzen dutenak.

(Gehienetan, holakoak dira errexak idazteko, bainan nekeak eta garestiak muntatzeko).
- Izan ditazke gaurko edo pastoralara zahar modukoak.

* * *

Horiek hola, "Bitor Garitaonaindia" 1976-ko antzerki sariaren baldintzetan antzerki mota horiek guztiak sar ditazke.

Nola epaitu lan hoin desberdinak?

II

Epai-mahainaren egitekoak dira:

a) Hurbildik ikertzea ean epaitzeko antzerkiak, ondo betetzen dituen sariketaren oinharriak.

b) Ean zer balore daukan *literatura* aldetik (Ez dantza, musika, edo kantuen aldetik).

c) Zer balore, "*nola gorpuztua*" den aldetik (zatiak elkarri tinki lotuak —denak beharrezkoak, betegailu hutsik gabe— elkarhitzketa onak).

d) Zer balore *gaia* aldetik (Ez dadiela izan hutskeria edo ustelkeria, bainan zerbait funtsezko dakarrena).

Horiek dira Euskaltzaindikoek ikertu behar dituzten sus-trai larrienak.

III

Bainan, Euskaltzaindiaren egitekoa balinbada epaitzea "*zer-eman*", ez da "*nola eman*" (Mimika, apaindura, beztidura, ahozkatzea, argia, kantua eta abar).

Bizkitartean, nola-emanak ere garrantzi handia du eta hortaz ere behar liezke sariketak (saria zuzendari hoberenari, talde, jokalari, apainduragile honerenari).

Nere iritziz, sariketa haukien sortzale eta zatikazale, izan behar lukete ANTZERKILARIEN BATASUN'eko buruek. Hauek baitira egokienak, holako lanarentzat.

Ikus ditakena da, ean BATASUN horrek BEHAR luken eta NAHI luken euskaltzaindiaren laguntza eta zer modutakoa.

IV

Bere sailetik atera gabe eta bere sariketako lana hobeki betez, Euskaltzaindiak lagunt ditzazke antzerkilariak.

Hortarakotz, gure sariketako baldintzak behar gintzuke apailatu, pentsatuz ez bakarrik idazlanari, bainan ere hura muntatuko duen zuzendariari.

Adibidez, "*Bitor Garitaonaindia*" sariketaren oinharriak, ez balitz beranduegi, osa nintzazke, hunelako baldintza batzuez:

1. *Iraupena*: Bi ordu inguru.

2. *Jokalariak*: Mintzo direnak: Hamar inguru (Mintzo gabeak bertzalde).

3. *Gaia*: Edozer, ororentzat on dena (Beraz ez haurrentzat bakarrik).

4. *Taulagaine*ko *apaindura*: (Aldaketa gutikoa).

5. *Dantza, kantu, musika*: Gutu eta antzerkiaren gorputzari ongi lotuak.

6. *Saria*: (Lehen hiruen artean zatikatua).

Holatsuko jokabidea hartuz, Euskaltzaindiak hurbilagotik zerbitza lezake antzerki kultura.

V

Baldintzen osatze hortaz bertzalde, antzerki sariketak behar gintuzke gehiagotu... Nolaz hori?

a) Erran gabe doa, behar dela beti errespetatu diru-sari emaileen nahia... Bainan, ez ote lezake askotan Euskaltzaindiak ardiets sari eskaintzalearen ganik, gure eskuetan izan dadin zonbateri, zeri eta zonbateko saria eman? Duguna bertzela zatikatuz eta, ahalaz gehiagotuz, lan zabalagoa eta zuzenagoa (hau diot epai-mahainekoeri buruz) egin lezakegu.

b) Antzerki sariak behar gintuzke ere *aldizkatu*, gisa hartako sariketak moldatuz, mota guzitako antzerkilariak laguntzen ditugula, irrati eta telebixtakoak barne.

Planteamendu huni esker, guti duguna lagunt dezakegu emendatzen eta eskar duguna, sortzen.

Asko alapide badira, ez baita oraino hetan gure antzerki-gintza sartua (adibidez: fiktizio-jakintza, psiko-eritasun, etzotismo eta abar).

VI

Beharrezkoa ere ginuke antzerkitegi bat, bere fitxa, lan-toki, harreman guziekin. Bainan ote dugu gaur, lan horren ongi eramateko ahalmenik?

Noizbait ere sortu behar ginuke gutarteko "Idazlari Esku-bideen" batasun bat, gure antzerkigintzaren onetan... Gaur ditugun era hortako batasun arrozek, lapurtzen bagaituzte, laguntzen baino gehiago.

VII

Hitz laburrez eta helburutzat, gaurkotz gure ahalmenetan dena eta eskatzen dutana da:

Euskaltzaindiak izendatu "Antzerki Batzorde" batek, ikert eta atera dezala planteamendu berri bat, sariketeri buruz, gogoan hartuz, bertzeak bertze, hemen dioztanak.

HIL BERRIAK

ANTONIO ARRUE JAUNA HIL ZAIGU

Euskaltzaindiko bilkura eta lanetan beti lankide txintxo eta jarraikia izan dugun ANTONIO ARRUE jaunak betiko utzi gaitu. Gutien uste genuenean, gainera.

Egia da aspaldixotik aipatzen zuela bere on-eza edo gaisotasuna, baina kezka ematekoa ez zela gaineratzen zuen beti. Goian bego gure lagun zaharra! Zor zaizkion ainakoak izango ez badira ere, bihoaz lerro motx hauk haren oroitzapenetan.

Asteasu-n jaioa zen, 1903. urtean. Estudioak Lekarotz-en eta Oviedo-ko Unibertsitatean eginak zituen. Lege gizona. Donostiako "Julio de Urquijo" Euskal Filologi Mintegiaren fundatzaileetakoa. 1954.ean euskaltzain oso izendatua. Hizlari trebea euskeraz. Euskaltzaindiko hainbeste euskal jaialditan eskeini digu bere hitz ederraren emaitza. 1976ko azaroaren 17an hil zen.

Lanak: Guztiak aipatzeko bat ere asmorik gabe, honako hauk behintzat gogoan ditut: *Egan* aldizkarian anitz urtez mantendu du bere sail jakina: "Jan-Edanak". Hortaz gainera: Juan Bautista Agirre euskal idazleari buruz hitzaldia (*Egan*, 1954); Gerriko euskal idazleari buruz hitzaldia (*Egan*, 1956); Azkueri buruz hitzaldia (*Eusker*a, 1957); "Loramendi" olerkariari buruz hitzaldia (*Eusker*a, 1960); Peru Abarka-ren edizio berriari hitzaurrea (*Kuliska Sorta*-n); Euskeraren batasunaz hitzaldia (*Euzko Gogoa*, 1956); "Cuatro Poetas Vascos